

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Proiektuaren izena eta deskribapen erakargarria

Enpresaren izena: *EAO Bizikleta elektrikoak*

Durungaldean, bizikletak alokatzeko enpresa bat sortuko dugu. Bizikleta elektrikoak izango dira eta merke jarriko ditugu. 16 urtetik berako pertsonak, adin nagusiko baimena izan beharko dute, adin nagusikoak aldiz ez. Bizikletak lokalizatzaileak izango dituzte, lapurtu ezker, lokalizatu ahal izateko. Gainera, bizikleta guztiak giltzarrapo bat eramango dute, edozein leku batera joaten zarenean edozein lekutan uzteko. Bizikleten diseinuak enpresa batzuen publizitatea eramango dituzte. Tamaina desberdinetako bizikletak egongo dira, bezeroen alturaren arabera. Durungalde inguruan bizikletak aparkatuta uzteko eta kargatzeko leku batzuk jarriko ditugu, jendea gustura sentitzeko bizikletak gertuago edukita. Horretarako puntu estrategikoak edukiko ditugu Durungaldean zehar, adibidez: Abadiñon, Tabiran, Landakon, Durangoko Udaletxean, Iurretan... Horrelakoak izango dira bizikletak uzteko, kargatzeko eta hartzeko lekuak:



Zein izango da bezeroak izango duen eskaintza gure ideiarekin.

Gure bezeroei bizikletako zerbitzu eroso eta kalitatezkoa eskainiko diegu eta gainera, ez dute egon behar bizikletaren menpe, edozein momentuan utzi edo hartu ahal dute eta lapurketa kasu batean, ez da haien bizikleta, beraz, ez dute zertan ordaindu behar. Gainera, bizikleta hauek ez dute kutsatzen, zeren eta elektrikoak dira, orduan mundu hobe bat eraikitzen hasiko dira.